

Landare-estraktuak erabiltzea arrinetan eta arrantza-produktuetan

AESANek landare-estraktuak arrinetan eta arrantza-produktuetan erabiltzeari buruzko Araudiaren Interpretazio Oharraren eguneratzea argitaratu du.

Badira zenbait urte zalantza ugari planteatu direla landare-estraktuak arrinetan (bereziki atunean) erabiltzeari buruz; batik bat 2016ko kasuaz geroztik. Kasu hartan, iruzurrezko zenbait jarduketa identifikatu ziren, adibidez “margotutako” atuna merkaturatzea.

Iruzur hartan, atunari landare-estraktuak gehitzen zitzaizkion, atun-espeziearen kolore generikoa aldatzeko eta “*atun gorri*” gisa saltzeko, merkatuan estimatuagoa baita.



Oharrean honako hau jakinarazten da:

Indarrean dagoen araudiak ez du baimentzen landare-estraktuak arrinetan eta arrantza-produktuetan (prestatuak zein ez prestatuak) erabiltzea, eta hala eginez gero, baimendu gabeko elikagai-gehigarri bat erabiltzen da isilpean. Jarduketa horren xede nagusia da produktuaren itxura hobetzea (adibidez, atunari kolore gorria ematea) eta balio-bizitza luzatzea. Horrek, kontsumitzaileak nahasaraz ditzake eta arriskutsua izan liteke osasunarentzat; izan ere, histamina-maila altuak izan ditzake. Horrez gain, merkataritza-iruzurra litzakete.

Nota de Interpretación de Normativa sobre Uso de extractos vegetales en pescado y productos de la pesca

(http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/docs/documentos/seguridad_alimentaria/interpretaciones/quimicas/extractos_vegetales_uso_pesca.pdf)

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 . berri@elika.eus -
(<mailto:berri@elika.eus>)